

## 14 EUSKAL ENPRESEK PARTE HARTUKO DUTE TXINARAKO MISIO KOMERTZIALEAN

**Donostia - 2016ko irailaren 16a** - Txinara joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganbarekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misio irailaren 19a eta 23a bitartean egingo da eta 14 enpresek parte hartuko dute, 5 gipuzkoar, 7 bizkaitar eta 2 arabar. Misio komertziala osatzen duten hamalau euskal enpresak Txinara habiatuko dira lehendik dituzten merkataritza harremanak sendotzeko.

### Txina

Txina munduko bigarren ekonomia da EEBBen atzetik eta une honetan bizi duen egoera aldrebesatuaz eta tensio finantzieroez gain Asiako %69ko BPG izaten jarraitzen du, Japonia kontutan hartu gabe. 2015ean BPG erreala urte arteko %6,9a hazi zen (%7,3a 2014ean), Txinak 25 urtetan eduki duen hazkunde tasarik bajua, nahiz eta helburu ofizialen %7aren barnean egon. NDFak eta ELGEk 2016 eta 2017 urterako egin dituzten aurreikuspenek hazkundearen jaitsiera gradual bat baiesten dute, %6,5ean eta %6,2an finkatuz. Moteltze hau 2013 urtetik hazkunde modelua aldatzeko egiten ari diren egiturazko berrikuntzen ondorioa da.

2016ko bigarren hiruhilekoan, Txinako ekonomia urte arteko %6,7a hazi zen, helburu ofizialen barne geratzen delarik %6,5etik %7ra. Hazkunde hau industria produkzioaren igoera handiago batengatik eta kontsumoaren eta inbertsio pribatuen jokaera egonkorrago batengatik sustatu da, eta honek guztiak euskadiko enpresen salmentetan oihartzuna izan du.

Euskal Herritik Txinara egindako esportazioak, modu garrantzitsuan ari dira errekuperatzen aurten Arabako automobil ibilgailuen esportazioei esker eta baita Gipuzkoako ekipamenduko ondasunen esportazioek izan duten hobekuntzari esker ere. Honek guztiak Euskal Autonomi Erkidegotik Txinara egindako esportazioen %18,3ko igoera suposatzen du 2016ko lehenengo bost hilabetetan, 2015eko esportazioekin konparatuz.

Esportazioak			
2016 maitza arte		2015 maitza arte	
Probintzia	balioa (mila eurotan)	Probintzia	balioa (mila eurotan)
ARABA	94.801,25	ARABA	38.517,88
GIPUZKOA	92.111,51	GIPUZKOA	85.904,78
BIZKAIA	26.191,00	BIZKAIA	56.477,38
	<b>213.103,76</b>		<b>180.900,04</b>



Esportazioak. Txinara egindako esportazioen garapena (mira eurotan):

	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>
<b>Gipuzkoa</b>	245.528	267.081	347.086	216.386
<b>Euskadi</b>	419.223	495.932	635.745	441.629

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347